



Karlos Kortabarria | IES Lasarte Usurbil (Lasarte) | 1. Saria Batxilergoa (Leningrado)

Argazkiak: Sara Santos

“Kosmodiseak ikasleen abileziak batzen ditu lan bat aurrera ateratzeko”

Karlos Kortabarriak, Kosmodiseako azken edizio honetan, Batxilergoaren kategorian lehen saria lortu duen Lasarte Usurbil BHIko bost ikasleren taldea zuzendu du. Ekimen honetan izan duten parte-hartzeari buruz egiten duten balorazioa interesgarria izan da, denek hartu baitute parte *“eta bakoitzaren abileziak batu dituzte egin beharrekoak aurrera eramateko.”*

Karlos Kortabarriak dioenez, ikasleek gehien baloratzen dutena zerbait berria eta interesgarria egiteko aukera da, *“ohiko klaseetatik kanpoko ekintza eskertzekoa”* izan baita. Logikoki, bere taldeko neska-mutilek era positiboan jaso dituzte emaitzak, baina hala ere, *“zenbaitzuetan zailtasunak eta denbora falta izan dituztela nabarmendu dute.”*

- Zure ustez, ikasleentzako zein balio positibo eskura daitezke Kosmodisean parte hartuz?
- *Elkarrekiko lana eta laguntza, eta bakoitzaren ekarpenaren errespetua.*
- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena? Zein alderdi hobetu beharko lirateke, zure ustez?

- *Orokorrean, iazko eskemak jarraitu du, eta ongi dago. Bestalde, proba objektiboa den simulatzailea, hasiera batean gutxienez, nahiko zaila egiten zaie. Sarritan konexioarekin arazoak egon dira eta izaten dugun denbora mugatua kontutan izanik...*
- *Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duzu?*
- *Ikasleak prest baleude...*
- *Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...*
- *Ikasleek lehenengo postuan gelditzeagatik jasotzen duten saria (argazki kamera) desorekatua gelditzen da ikastetxeak eta irakasleak jasotzen duenarekin (arbel digitala eta 1.200 €).*

